

www.noaia.com Noaia !!



Ruper Ordorikaren berriena
entzuteko aukera aparta

Usurbildik abiatu zen
zero zabor helmuga duen norabidea





**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**


**Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak**

www.lhusurbil.com



**Maiatzak 12 eta 19
ATE IREKIAK**

943 36 46 00



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

ASEGURUA DUTEN FAMILIENTZAT:

Deitu ZUZENEAN gure ehorztetxera,
zerbitzua ematen hasteko denbora
murriztuz, izapide guztietaz arduratuko gara
eta **BONIFIKAZIO** berezi bat zuen polizan

**ASEGURU GUZTIAK
BEILATOKI-TANATORIO GUZTIAK
ERRAUSKETAK
OSPITALETAN ERE ZERBITZUA**

**943 36 21 63 (24H)
660 388 652 - 608 16 77 92**

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

**Herri osoa enteratuko da...
Zure publizitatea hemen**



Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak

943 360 321 publizitatea@noava.com www.noava.com



DIGITAL+

**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

**Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...**



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenatelemar.com



Albistea iruditan!

Babes ofizialeko etxebizitzaren lanak, aurrerabidean

Urtea bete berri da, Agerreazpi eta Sekaña eremuetako babes ofizialeko etxebizitzak zozketatu zirenetik. 2011ko apirilaren 29an izan zen, Oiardo Kiroldegian. Jakin min handia piztu zuen ekitaldiak. Etxebizitzaren lanak ere hilabete horien bueltan hasi ziren eta urtea pasa den honetan, ondoko irudiko itxura dute jada. Atzerapenik ez bada, etxebizitza hauetako jabeek datorren urtean jasoko dituzte euren pisuetako giltzak.

Agerreazpin eta Sekañan, babes ofizialeko 58 etxebizitza eraikiko dira.



ATZERAPENIK EZ BADA, DATORREN URTEAN BANATUKO DIRA GILTZAK.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

Aurreko astean, astekari honetan ere Lontxo Zubiriak idatzi zuen eskola txikiei buruz. Hala eta guztiz ere nik neure tartetxoa eskaini nahi nieke. Izan ere, badator eskola txikien festa, Gipuzkoako eskola txikien koordinakundeak 25 urte beteko dituen honetan. Aurretik baziren ere landa giroko eskola nazionalak, baina aldaketa handia jasan zuten duela mende laurden, eskola txikiak bihurtuz. Gurasoen parte hartze handia eskatzen duen eredia da, eta horrek proiektuan inplikatzeari dakar. Zubietako kasuan, 2-8 urte arteko 46 haur daude. Haur eta lehen hezkuntza zerbitzuak eskaintzen ditu, eta nahiz eta azken honek 6-12 urte arteko haurrak bere baitan hartu, Zubietan 8 urterekin bukatu behar dute. Duela 2 urte gurasoak saiatu ziren haur hezkuntzaz gain lehen hezkuntza osorik ere har zezan, baina Eusko Jaurlaritzaren erantzuna Haur Hezkuntzan bakarrik geldituko zela izan zen. Lan asko eta bulego askotan nego-

ziazio itzelak izan eta gero, lehendik zegoena mantentzea lortu zuten gurasoek. Hori bai, haien kargu gelditu zen jangela eta 3. ikasgela eskaintzen duten prefabrikatuak alokairu eta dotazioa, non eta eskola publiko batean! Garaiko Donostiako Udalak ere laguntza ukatuta (ofizialki Donostiako eskola baita), Usurbilgo udalari esker aurre egin ahal izan genion erronkari.

Oraingo Donostiako Udalak, berriz, prefabrikatuak kentzeko nahia agertu du, eta eraikitzeko beharrezkoa izango den diru partida prestatu du datorren urterako, baina oraindik ere ikustekoa dugu Eusko Jaurlaritzak besterik gabe onartuko ote duen...

Eskola, herria bizirik mantentzeko ezinbesteko tresna da, herria kohesionatzeko. Eta honek oraindik are garrantzia handiagoa hartzen du Zubietan bezalako eremu batean, hirigune handiz inguratuta. Horregatik, Gipuzkoako eskola txikien alde, Larraulen elkartuko gara ekainaren 3an.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

Eskolaz kanpoko ekintza berria: Bertso Eskola

Herrian bertso zaletasuna bazela ikusirik baina bertso mugimendua pattalduta zegoenez gazte talde bat Bota Punttuba berregituratu eta berriz ere martxan jartzeko asmatan hasi ginen. Gure helburua bertsoetan zerbait egiten ikasteaz gain bertso zaletasuna herrian zabaltzea izan da bi urteko bide motz honetan.

Datorren ikasturteari begira egitasmo berri batekin gatoz. Edozein ekintzak jarraipena izan dezan beharrezkoa da gazteen indarra eta arnasa eta hori lortu nahi genuke, horretarako DBH1-4 bitarteko gazteekin osatutako bertso-talde bat martxan jarri nahi dugu.

Bertsolaritza hitzen neurketa eta errimatzea baino askoz gehiago da. Euskararekin jolastea abiapuntutzat

izanik gure burua kokatzen, ezagutzen, indartzen laguntzen digun tresna da. Azken finean, gai baten inguruan bertsoetan ari denak bere bidea zein den ikusi eta bere arrazoiketa landu behar du nortasuna eraikiz.

Bertso eskolaren helburua bertsoaren osaketa hutsetik haratago doa ordea, lagun taldean bertsoaz gozatea lortu nahi da bertso zaletasuna zabalduz eta bertsoak dituen zirrikituak ezagutzat. Bertsoaren bertigoia sentitzearen esperientzia bikaina ere biziko du bertaratzen denak eta uste gabeko sorpresa atseginak hartuko ditu bere burua amildegi hertzean sentitu eta funanbulista bikainen gisan oztipoa primeran gaingiditzen duela ikustean. Noski hizkuntzaren lanketa egitea ere derrigorra izango da metafora, errima,

hitz-jolasak...

Lagun giroa azpimarratu nahi dugu batez ere, bertsolaritza kulturalki pisu handiko ekintza izanik oso lagun talde anitz eta aberasgarriak osatzen baitira bertso eskoletan. Ausartu zaitez beraz, zirrara sentitu, ikasi, bertsozaletu eta batez ere ondo pasa nahi baduzu. Talde berria izango da eta bertaratutakoek jarriko dituzte lortu nahi dituzten helburu eta erritmoak.

Izena eman edo informazio gehiago eskuratzeko: botapunttuba@gmail.com

**Eskertuko genizueke interesa duzuenok maiatzaren izena ematea gutxi gorabehera zerrenda osatu eta irakaslearekin harremanetan jartzeko.*

Bota Punttuba Bertso Eskola

Akatsak zuzenduz: maiatzaren 4ko astekarian, Kalejiran atalean, Aginagako kronikan bertako herri ikastetxeko langileen izenak aipatzen ziren. Tartean, langileetako batek Maider izena zuela genion. Ez du ordea Maider izena, Maialen baizik. Barka eragozpenak.

Agurtzane Solaberrieta, D3M-Askatasuna epaiketaz

“Beste garai bati dagozkion argudio eta jarrerak dira”

D3M eta Askatasunaren aurkako epaiketa abian da Madrilén. Saio gehienak burutu diren honetan, oraindik akusazioak ez du bi alderdiak ETArekin lotzen duten froga zehatzik aurkeztu. Auziperatuak berriz, lasai daudela adierazi zion NOAUA!-ri aste hasieran, Agurtzane Solaberrieta usurbildarrak. Epaiketa aurretik esandakoa berresten ari direla nabarmendu zuen.

Astekari hau ixterako, D3M eta Askatasunaren aurka Espainiako Auzitegi Nazionalean burutzen ari diren epaiketaren lehen lau saioak paseak ziren. Auziperatuak hilaren 3an, epaiketa abiatzean deklaratu zuten. Soilik defentsaren galderei erantzun zieten, eta guztiek D3M edota Askatasun lan politiko eta publikoa egin zutela adieraztearekin batera, ETArekin inolako loturarik zutenik edota 2009ko hauteskundeetara ETaren aginduz aurkeztu zirenik ukatu zuten.

Azken egunotan, peritu gisa aurkeztu dituzten hainbat polizia nazional eta guardia zibilek deklaratu dute. Baina ez dute D3M eta Askatasuna ETArekin

lotzen duen froga zehatzik aurkeztu. Hedabideek zabaldu dutenez, publikoki auziperatuek deklaratu zutena, eta alde aurretik gizartean jakina zena baino ez dute argitzerik izan. Esaterako, D3M eta Askatasuna alderdiek 2009ko hauteskundeetara aurkeztu asmo zutela, urte berean Baltasar Garzonek debekaturiko manifestaldi bat antolatu zela edota jendaurreko agerraldietan parte hartu zutela. Horixe, gaurkoz 13 auziperatuei, tartean Agurtzane Solaberrieta usurbildarrari, egozten dietena.

Epaiaren zain

Agurtzane Solaberrietaren esanetan, agerian geratu da “Ezker abertzalean militatzen dugun kideak jasaten dugun jazarpen poliziala”. Guztiz salagarria, eskandalu bat bere esanetan. Jendaurreko agerraldi edota manifestazioak deitu edota hauteskundeetara aurkezteagatik, argi dio Solaberrietak, “horrek ez gaitu ETako egiten”.

Akusazioarenak “beste garai bati dagozkion argudioak eta jarrerak dira”. Eta argi du, espainiar estatuko “zenbait estamentu ez daudela konponbide faseari



MADRILEN ARI DIRA EPAITZEN
AGURTZANE SOLABERRIETA.

begira”, Madrildik telefonoz NOAUA!ri eginiko adierazpenetan.

Egun osoko elkarretaratzea

Maiatzak 12, larunbata

Egunean zehar, txandakako elkarretaratzeak Mikel Laboa plazan. Herriko talde, eragile desberdinek parte hartuko dute.

20:00-21:00 Elkarretaratze irekia, herritar ororentzat.

Deitzailea: Eskubide guztiak proiektu guztientzat taldea.

Ika-mika !!

Gurutzea nahi duenak, eskatzearekin nahikoa izango du

2012ko maiatzaren 4ko Noaua aldizkarian "Hilerriko gurutzea kentzea erabaki du Udalak" izenburupean argitaratu zen berriaren inguruan Usurbilgo Udal Gobernu Taldeak hainbat puntu argitu nahi ditu:

- Udalak ez du hilerriko gurutzea kentzea erabaki; Usurbilgo hilerrian ez baitago gurutzerik.

- Udalak eman duen agindua tanatorioko gelan ere publikotasun izaerako edozein eraikin edo zerbitzutan pertsona guztiei zor zaien begirune eta eskubidea ez urratze aldera hartutako erabakia izan da. Era horretara, aipa-

tutako gelan zegoen egurrezko gurutze mugikorra beste gelan gordetzea agindu zen; gurutzea jarri nahi duen edonork eskuragarri du bertan eta inolako arazorik gabe aukera izango du, hala nahi badu, erabiltzeko.

-Beraz, aldatu den gauza bakarra tanatorioaren zerbitzuan hauxe da: gurutzea nahi ez duenak ez duela kentzea eskatu beharrik izango. Gurutzea nahi duenak, aldiz, eskatzearekin nahikoa izango du, lege ofizialak eta elkarbizitzaren legeak dioenarekin bat eginez.

Estatu akonfesionalean bizi garel

kontuan hartuta, espazio honetan ez litzateke eman behar inolako tirabirarik ikur honen presentziaren aldeko eta aurkakoen artean. Akonfesionalitatea lurralde neutroa baita; guztiona eta inorrena. Horregatik, norberaren sinismenaren edo sinismen ezaren sinbolorik inposatzeko eskubiderik ez dagoela ulertzen dugu, eta horregatik hartu da goian aipatutako erabakia. Errespetu osoa mantenduz herritar guztiekin, fededunak izan ala ez.

Bildu, Usurbilgo Udal Gobernu

Zero Waste sarean integratzea eskatuko du Gipuzkoa Zero Zabor taldeak

Europa mailako Zero Zabor mugimenduak jardunaldiak antolatu ditu asteburu honetarako Donostian. Bertan, Europa Zero Waste sarean sartzea eskatuko du Gipuzkoa Zero Zabor taldeak. Iragarpenok, eszenaratze berezi baten bidez egin zituzten apirilaren 30ean, herrialdean udalerriz udalerriri sortzen joan diren zero zabor taldeetako ordezkariak.

Ostiral honetan, maiatzaren 11n hasi eta igandera arte luzatuko dira Europa mailako Zero Zabor mugimenduak Gipuzkoako hiriburuan antolatu dituen jardunaldiak. Herrialdeko zero zabor taldeak biltzen dituen mugimenduarentzat nabarmentzeko moduko hitzordua, Gipuzkoa Zero Zaborrek aipatu Europa mailako mugimenduan integratu asmoa baitu, apirilaren 30ean ekimen deigarri baten bidez inguruotan sortzen joan diren zero zabor taldeetako ordezkariak Ondarreta hondartzan berri eman zuten.

ASTEBURU HONETAN

“Zero Waste Europe-koek urteroko topaketa Gipuzkoan egin nahi izan dute”

"Zero Waste Europe-koek beraien urteroko topaketa Gipuzkoan egin nahi



ERA HONETAN IRUDIKATU ZUTEN ZERO WASTE SAREAN BAT-EGITEA.

izan dute, hemen sortzen ari den aukera gertutik segitzeko", adierazi zuten.

Udalerriri ugarri

Albisteon berri eszenaratze berezi baten aurrean eman zuten zero zabor taldeetako ordezkariak. Bidegurutze bat marraztu zuten Ondarreta hondartzan. Gipuzkoako udalerriri desberdinen izenak idatzirik txartelak eskutan zituztela, zero zabor taldeetako ordezkariak, bidegurutze horretan, bi bideren aretan hautatu behar zuten. Batetik, eskuinaldera zihonan bidea zuten. Trafiko seinale itxurako 35 zenbaki batekin, eta zabor poltsak bidearen norabidea markatzen zuten. Bidearen amaieran, zabor poltsak pilatuta ageri ziren. Bestetik, ezke-

rraldera beste bide bat zuten, haize-rrota koloretsuez, organikoa biltzeko kubo marroi eta konpostagailuez inguratua. Bide hau hautatu zuten hain zuzen, agerraldian parte hartu zuten zero zabor taldeetako ordezkariak. Honako udalerriri hauek jorratu zuten, gaikako bilketa eta birziklapenaren aldeko bidea: Lezo, Pasaia, Astigarraga, Hernani, Usurbil, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Eibar, Mutriku, Azpeitia, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati, Legazpi, Zumarraga-Urretxu, Ormaiztegui, Segura, Lazkao, Ordizia, Zaldibia, Legorreta, Alegia, Tolosa, Ibarra, Lizartza, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Asteasuk.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

Gero eta Zero Zabor talde gehiago

Azken urteotan, udalerrri guztiotara hedatu da Zero Zabor mugimendua eta horren inguruan herritarrak bilguneak sortzen joan dira. Apirilaren 30eko agerraldian, aipatu moduan guztiak batera agerraldia eskaini zuten Donostiako Ondarreta hondartzan eta adierazi zuten, "gero eta gehiago gara Gipuzkoan arazoa eta irtenbidea zein diren garbi daukagun herritarrak. Geroz eta herri gehiagotan sortzen ari dira bide positiboan eragiteko Zero Zabor taldeak".

Argi dute hondakin kudeaketan zein den aurrera begirako erronka: "Erraustegiaren proiektua atzera bota eta Zero Zabor politikak lehenbailehen abian jartzea lortu behar dugu, gaur egun dauden zabortegei kutsakorrak ixteko". Honako eskaera luzatzen diete erakundeak: "Administrazioei, herritarren ongizatearen defentsan ausart izateko eskatzen diegu, guztion artean, Gipuzkoa, Zero Zabor lurraldea izatea lortuko dugulako".


Hondakinak, lehengai

Duela hiru aste Europako Ingurumen Batzordeak kaleraturiko txosten baten berri ezagutzera eman zen. Hondakinak, lehengai gisa, urte bezala tratatzera deitzen zuen, hondakinak erraustu edota zabortegeiak alboratzea proposatzarekin batera. Zero

zabor taldeek Ondarretan eskainitako prentsaurrekoan, txostenak jasotako edukiaren zati bat irakurri zuten. Honakoa dio: "Zabortegei eta erraustegiak kentzen joatearen alde egiten dugu apustu, hondakinak tratatzeko modu ekologikoagoak lehenetsiz. Baliabideak era efizientean erabiltzearen alde gaude eta posible den kasuetan hauek berrerabiltzea. Birziklatu ala konposta daitezkeen hondakinak ez erraustea eskatzen dugu. Gure hondakinetak materialen balioa berreskuratu behar dugu hauek gaika bilduz eta birziklatuz".

Produktuen diseinuan eragin

Ekoiaren prozesuak ere zeresan handia du hondakin sorreran: "Produktuen diseinuan eragin beharra dago hauen birziklapena eta konponketa posible egin, eta biziraupena ziurtar-



GIPUZKOA, ZERO ZABOR LURRALDEAN BILAKATU NAHI DUTE.

tzeko. Hondakinak baliabide izatea sustatu behar da zerga politikaren bidez, eta hauek zabor bihurtzea zaildu", azaldu zuten.

Arazoen ordez, aukerak sortzea

Europatik datorren bidea hobesten dute zero zabor taldeak, apirilaren 30ean irakurri zuten komunikatuan ziotenez, "arrazionalitatea eta konponbidea" alegia, hondakinak zabor bihurtzeak arazoa larriagotzen duela gogoraraztearekin batera. Gaineratzen zuten, "munduan zehar Zero Zabor politiketan aplikatzen diren neurriak gurera ekarri

behar ditugu. Hondakinetatik arazoak sortzeari utzi eta aukerak sortu behar ditugu". Bestalde, apustu hau egitea krisi garaioarako ere lagungarria izan daitekeela ohartarazten dute: "Gauza jakina da ekonomiari on egiten diola baliabideak ondo probestek. Sektore ekonomiko oso bat eraiki daiteke berrerabilpena eta birziklapenaren inguruan eta lanpostu mordoa sortu".

Europa mailako Zero Zabor jardunaldiak, asteburuan Donostian

Europa mailako zero zabor mugimendua kongresua antolatu du asteburu honetarako, Donostian. Xabier Mikel Errekondok hitzaldi bat eskainiko du.

MAIATZAK 11 OSTIRALA

19:00 "Zero Zabor bidean-paradigma berria", Donostia Udaletxean.

19:00 "Zero Zabor esperientzia" European Arrasateko Arimazubi

Ikastolako Areto Nagusian.

MAIATZAK 12 LARUNBATA

10:00 Donostiako Aiete Jauregiko Kultur Etxean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren harrera.

10 urrats Zero Zaborreraren iristeko: udalenzako estrategia, Dr. Paul Connert.

Gaikako bilketa selektiboa eta errefusa biologikoki egonkortzeko espe-

rirentziaren aurkezpena.

12:00 Italiako Zero Zabor udalerrri baten esperientziaren aurkezpena.

-Kataluniako Zero Zabor udal baten aurkezpena.

-Usurbilgo esperientzia, lehen pertsonan kontatua, Xabier Mikel Errekondo.

-Europako Zero Zabor udalen sarea osatzen, Joan Marc Simon.

13:30 Amaiera.

Enara Arbizu, Hezkuntza, parekidetasun eta garapen zinegotzia

“Berdintasun Kontseilua martxan jarri nahi dugu”

Berdintasun Planak aurreikusitako ekintzak, kontseilu bat sortzeko asmoa, ikastolaren eraikina, garapen agentzia berria... Kontu ugari eta desberdinak dituzte esku artean, hezkuntza, parekidetasun eta garapen alorraz arduratzen diren udal teknikariek eta gaiok kudeatzen dituen gobernu taldeko kide Enara Arbizuk. Guztien nondik norakoen berri, lerrootan.

NOAUA! Berdintasun Plan bat onartua du Udalak, zer fasetan dago?

Enara Arbizu. Udalak Gizonen eta emakumeen berdintasunerako plana onartua du, 2010-2014 urte arterako. Bertan agertzen dira zer ekintza burutu beharko liratekeen urte horietan zehar. 2010etik hona ekintza horietako batzuk egin dira, burutzen ari dira beste batzuk. Plana, jarraibide batzuk ematen dituen instrumentu bat da.

BERDINTASUN KONTSEILUA

Herritarrek udal egituraren parte hartzeko aukera izatea litzateke helburua

N. Aldunditik tokiko berdintasun politikak bultzatzeko konpromiso eskaera jaso duzue, ezta?

E. A. Usurbilen alor horretan pixka bat aurreratuta gaude, eta badira urte batzuk politika horiek aurrera eramaten direla. Politika transbertsalak dira, alor guztietara zabaltzen direnak. Berdintasun Plana martxan jarri zenez nabari da genero ikuspegia txertatzen doala. Iaz ikastaroa egin zen udal teknikariek. Aurten ikastaro hau martxan jarriko dugu berriz, politikari berriok ere parte hartzeko, genero ikuspegia barnertzen joateko.

N. Gizon eta emakumeen udal ordenantza onartzea, eta Berdintasun Kontseilu bat martxan jartzea. Zertan



ENARA ARBIZU ZINEGOTZIA.

dira bi gaiok?

E. A. Udal ordenantza oraindik zehaztu gabe dago. Onartzeko nahia hor dago, baina lehenengo Berdintasun Kontseilua osatu nahi dugu. Epe motzera egin nahi dugu. Ordenantzaren gaiak luzeragoko joko du, beste lanketa bat behar baitu. Baina Berdintasun Kontseilua martxan jarri

nahi dugu lehenbailehen.

N. Zer funtzio beteko luke?

E. A. Bilgunea sortzean, denen artean zehaztuko da zer funtzio beteko duen eta zer egingo den bertan. Helburua, kontseilu horren bitartez herritarrek ere udal egituraren parte hartzeko aukera izatea litzateke.

Oso giro polita ahalduntze tailerretan

NOAUA! Emakumeen ahalduntze tailerrek arrakasta izan dute, ezta?

Enara Arbizu. Harrituta geratu ginen. Eta kanpotik entzun duguna ere hori izan da, halako herri txiki batean halako harrera izatea... Kosta egiten da normalean halako tailerrak aurrera ateratzea eta hemen ez da hala izan. Usurbilen harrera ona izan dute. Lehenengo tailerra, 2011ko apirilean jarri zen martxan. Hiruhilabetekoak dira. Honenbestez, laugarrena abian da ekainera arte. Une honetan bi tailer daude, bat Pepa Bojók zuzendua gaztelaraz eta bestea Nagore Aranburuk euskaraz ematen duena. Hasieran Bojók kontratatu zen, baina zenbat herritar apuntatu ziren ikusita, euskaraz beste tailer bat martxan jartzea era-

baki genuen. Bertan 8 herritarrek parte hartzen dute, eta Pepa Bojóreren tailerretan, 20koa zen partaide muga eta 20 emakume daude. Egin den ebaluazioan, orain arte bezala, emakume denek jarraitzeko asmoa dute.

N. Zeri buruzkoak dira?

E. A. Emakumeak ahaldundu, indartu eta tratatu onari buruzkoak. Hiruhilabete bakoitzean gai bat aztertzen dute; harremanak, krisi eta doluen lanketa, eraginkorki komunikatzen ikastea... Oso gustura daude emakume guztiak. Pepa Bojók zioenez, euren artean oso giro polita sortu da eta euren arteko harremana asko sendotzen ari da. Aurrerapen asko ikusten ditu taldean.

Ikastolarako eraikin berriaren harira:

“Alternatiba batzuk badira mahai gainean”

NOAUA! Udarregi Ikastolako eraikin berriko lanak ekainean hastekoak ziren. Aurreikusi moduan, aurrera doaz?

Enara Arbizu. Zehazteke dago. 0-6 urte artekoentzat eraikin bat egiteko proiektua eta hitzarmen bat ere bada, Udarregi Ikastola eta Udalaren artean. Hitzarmen hori bete arren, aurrekontua nahiko gora joan da eta denok ez dela bideragarria ikusten dugu. Beste aukera batzuk begiratzen gabilta.

N. Alternatiba bila beraz?

E. A. Alternatiba batzuk badira mahai gainean, baina zehazteke dago. Hezkuntzarekin lotuta, parte hartze prozesua martxan jarri nahiko genuke.

N. Hezkuntza ereduaren inguruan?

E. A. Batez ere Usurbilek eztabaidatzeko, herritar eta eragile guztien artean, guretzat, herriarentzat zer hezkuntza eredu nahi dugun. Nahia hori da.



“AURREKONTUA GORA JOAN DA ETA EZ DELA BIDERAGARRIA IKUSI DUGU”.

Oraindik lanketa egiten ari gara. Baina helburua hori da, hausnartzea horren inguruan eta herritar guztiok parte hartzea.

Eta guztion artean adostasun batzuetara iritsi, herrian zer hezkuntza eredu nahi dugun erabakitzeko.

N. Eraikinaren egoera nola konpondu ere prozesu horretan erabakiko da?

E. A. Hortik, irtenbide batzuk aterako direla pentsatzen dut. Elhuyarrekin harremanetan jarri gara, parte hartze prozesurako pausoak lantzeko.

Eskualdeko Garapen Agentzia, dagoeneko martxan

NOAUA! Garapena ez da oso udal alor ezaguna. Zer sartzan da bertan?

Enara Arbizu. Garapen ekonomiko eta lan mundua, horri egiten dio erreferentzia. Aurten adibidez, kontratu desberdinak egin dira Lanbiderekin loturik; 3-6 hilabeteko kontratuak izaten dira udalean dauden lan desberdinak egiteko. Adibidez, Zumarte Musika Eskola eta Maixu etxeko pisu batzuk margotzeko bi margolari kontratatu dira. Bestalde, Udalak antolatutako pintura ikastaroak amaitu berri dira. Ebaluazio oso onarekin, denek gainditu dute. Gehiengoa praktiketan dago. Lan mundura sartzeko aukera bat da.

N. Hor ere krisialdi ekonomikoa islatuko da, lan deialdiotako eskaerei dagokienean?

E. A. Teknikariak komentatzen zuen aukeraketa oso zaila izaten dela. Jende asko apuntatzen da, eta aukeraketa egitea lan handia izaten da. Bestalde, eskualdeko sei udalek hitzarmena sinatu dugu hasiera batean urtebeterako, eskualdeko garapen agentzia abiatzeko. Garapen ekonomiko eta lan munduari loturiko elkarlan bat egingo da. Aldundiak sustatu nahi du lanketa hori Gipuzkoan. Dirulaguntzak emango dituzte, ekonomia eta lan mundu aldetik nolako herri eta eskualde eredu nahi dugun lantzeko.

Sexu Aholkularitza

Gunearen lehen urratsak

N. Sexu Aholkularitza Guneak bost hilabeteko ibilbidea osatu du. Zer balorazio egin daiteke?

E. A. Sexu aholkulariak aipatu digunez, orain arte behintzat jendeari kontsultara joatea kostatzen ari zaio. Bere esanetan, lehenengo urteetan normala da. Orain, herritarrekin tailerrak egiteko asmoa dugu; adinekoekin, gurasoekin eta Gaztelekuko gazteekin. Bestalde, harreman onak sustatzeko Harremonak izeneko egitasmoa martxan da. Ikastolako DBH 3-4 mailetako eta Lanbide Prestakuntzako ikasle eta irakasleekin tailerrak egin dituzte. Alde guztietatik egin duten balorazioa oso positiboa da, oso gustura daude.

Sagardo Eguna girotzen hasteko, sagardo botatzaileen bilera eta dastatze-afaria

Hamar egun eskas geratzen dira maiatzaren 20an ospatuko den XXXI. Sagardo Egunerako. Herri sarreran usurbildarrentzat bereziena den urteko jaialdia iragartzen duen kartela jarri dute jada antolatzaileek, prestakizun lanak aurreratuta dituzte eta Sagardo Egunaren Lagunak bilgune-koek. Hilaren 20an, sagardoa zerbitzatzen aritu asmo dutenei begirako urteroko bilera eguna ere finkatu dute; maiatzaren 17rako, 19:30etan Potxoenean.

Bestalde, Sagardo Eguna girotzeko beste hitzordu bat ere lotu dute aurretan, Sagardo Egunaren Lagunak talde-koek. Alemania eta Usurbilgo sagar-

doak dastatzeko afaria antolatu dute Saizar sagardotegian, maiatzaren 18rako. Enologo baten laguntzaz, Fernando Vadilloren laguntzaz hain zuzen, bertako zein atzerriko sagardok probatzeko aukera egongo da. Ekitaldia irekia izango da herritar ororentzat. Afaritarako lekua hartzeko, Saizar sagardotegira deitu besterik ez dago: 943 373 995.

Maiatzak 17, osteguna
19:30 Sagardo botatzaileen bilera Potxoenean.

Maiatzak 18, ostirala
20:00 Alemania eta Usurbilgo sagardoak dastatzea eta afaria Saizar sagardotegian, Fernando Vadillo enologo-



SAIZAR SAGARDOTEGIAN EGINGO DA DASTAKETA MAIATZAREN 18AN.

rekin. Izen emateko deitu aldeztatik Saizar sagardotegira. Prezioa: 29 euro.

Maiatzak 20, igandea
Sagardo Eguna. 11:30ean irekiera ekitaldia. Hortik aurrera, jai!

Jendea goiz ibili zen Andatza Egunean eta jan-edatekoak berehala agortu ziren



Giro ederrean igaro zen Andatza Eguna. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, “mendizale ugari, txirrindulariak, zaldizaleak, trikitilariak, bertsola-

riak eta Zizurkilgoek antolatutako herri kirol eta jokoak izan ziren”. Jendea goiz mugitu zen eta jan-edanak inoiz baino lehenago agortu ziren.

“Egutegiko Neskak” antzezlanaren Artzabalen

Hondarribiako jubilatuek aktore dituen “Egutegiko Neskak” antzezlanaren ikusteko aukera egongo da ostegun honetan, maiatzaren 10ean, 17:00etatik aurrera Artzabalen. Ekitaldia Gure Pakea elkarteak antolatu du.

Maiatzaren 16an, Jai Batzordearen bilera

Arratsaldeko 18:30ean hasiko da bilera, eta Potxoenean bilduko dira. Aurten festak astelehena-rekin amaituko dira, egun handian, uztailaren 2an. Bestetik, egitaratu lehiaketan parte hartzeko epea maiatzaren 25ean amaituko da. Informazio gehiago: 943 371 999 edo kultura@usurbil.net.

Ruper Ordorika, "Hodeien azpian"

Jexux Artzeren omenezko ekitaldiei amaiera emateko, Ruper Ordorikak kantaldia eskainiko du larunbat honetan Oiardo Kiroldegian. Sarrerak aldeztu aurretik eskura daitezke, edo egunean bertan. Aurretik, arratsalde partean, kalejira bat egingo da.

"Bodologuak" antzezlanarekin txiki geratu zen Sutegi. Eta "Arriya" film proiektioaren ondoren, musikari loturiko ekitaldia programatu du Jexux Artze Kultur Elkarteak. "Hodeien azpian" diskoa aurkeztera etorriko da Ruper Ordorika. Lan horretako eta aurretik ezagutzera emandako beste hainbat abesti entzuteko parada izango

da. Sarrerak aldeztu aurretik eskura daitezke: 10 eurotan kiroldegian, Lizardin, Telekutxan (943 001 200), kutxa.net. Egun berean, kiroldegian, 12 eurotan.

Arratsalde, kalejira

Gaueko emanaldia girotzeko afalaurretik kalejira antolatu dute. Kaxkoan barrena ibiliko dira herriko txalapartari eta trikitilariak. Hauxe da beraz, larunbat honetarako lotu duten egitaraua.

Maiatzak 12, larunbata

19:00 Herriko txalapartariak eta trikitilariak kalez-kale Kaxkoan.

22:00 Ruper Ordorika kiroldegian.



RUPER ORDORIKA, LARUNBAT HONETAN USURBILEN ARITUKO DA.

Unai Elizasu gai jartzailearen hitzaldia, asteartean Artzabalaren

Apirilean Maialen Lujanbio bertsoalaria gonbidatu zuten Artzabalera. Oraingoan berriz, gai jartzaile bat; Unai Elizasu. "Izan gai-jartzailea" izeneko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 15ean, 19:30etik aurrera Artzabalaren. Bota Punttubak antolatutako ekitaldirako sarrera doakoa izango da. Bertso eskolatik aurreratu dutenez, "ariketa praktikoak azalpenekin tartekatuko dira saio honetan". Zehaztasun gehiago ere eman dituzte, "gai-jartzaile batek, gaia jartzerako garaian, garbi eduki behar du zer lortu nahi duen. Baina, zer da gauzak garbi edukitzea? Edo, nola jakin daiteke gaia ona edo txarra den? Ikastaroan saioa egituratzen ikasiko da.



"IZAN GAI-JARTZAILE" IZENeko HITZALDIA ESKAINIKO DU.

Horrez gain, gaiak sortzeko eta sailkatzeko prozesua irakatsiko da, eta baita giroa nola kudeatu ere. Saioa nola aurkeztu azalduko da, eta bertsolariari nola komunikatu ere bai. Intenzionalitatearen egokitasunaz ere ariko dira".

Iñaki Agirresaroberen diaporama berri bat

Lehen planoak baliatuz, diaporama berria osatu du oraingoan Iñaki Agirresarobek. Ostiral honetan, maiatzaren 11n erakutsiko du bere lan berria. 20:00etatik aurrera, Sutegiko auditorioan.



"GERTU GERTUTIK" DU IZENBURU ERAKUSKETAK.

JE JON ELORZA
IGELTSE RITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

Ingelesa lantzeko udalekuak

Enjoy English udaleku irekiak antolatu dituzte Udarregi Ikastolan, ekainaren 27tik uztailearen 24ra. 5-11 urte arteko haurrei zuzenduak egongo dira, astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00 artean. Ekimena gauzatzeko ordea, gutxienezko taldea osatu beharko dela ohartarazi dute Udarregi Ikastolatik. 300 euroko kuota ordaindu beharko du partaide bakoitzak.

Udalekuok jatorrizko hiztunak diren hezitzaileek gidatuko dituzte. Hauxe da bertatik, uda honetarako egiten duten gonbita: "Aisialdian ondo pasatuz, bizitzarako heztea. Ingelesezko komunikaziorako gaitasunak lantzea, jolas dinamikaren bitartez. Aisialdian eredu parte har-



HILABETE IRAUNGO DU ETA KUOTA 300 EUROKOA DA.

tzailea bideratuz, aisialdirako heztea. Jolasaren bidez aurrez aurreko komunikazioan eragitea. Jolasaren bidez talde harremana indartzea. Bakarka zein taldean, ondo pasatuz, ingelesez hainbat adierazpen kultural sortzea. Jatorrizko ingeles hiztunak izango ditugula baliatuz, atzerriko beste kulturen eta euskal kulturaren arteko elkartrukea sustatzea".

Zumartekoak, Villabonan kantari

Soinurbil Musika Astearen baitan egiten den trukaketa-kontzertuari jarraipena emanez, Zumarte Musika eskolako taldeak eta abesbatzak Villabonako Gurea aretoan izan ziren. Bertako musika eskolako ikasleekin batera, kontzertua eskaini zuten aurreko astean (maiatzaren 3an hain zuzen). "Kontzertua oso arrakastatsua izan zen eta ikasleak oso gustura geratu ziren egindako lanarekin", azaldu digute Zumarte Musika Eskolako arduradunek.



ZUMARTEKO ABESBATZAK ETA ESKOLAKO TALDEAK ARITU ZIREN, LOATZOKO MUSIKA ESKOLAKOekin batera.



Udajolaseko ordainagiriak ekartzeko garaia

Maiatzaren 13ra arteko epea dute Udajolasen izena eman duten haurren gurasoek, udalekuetarako ordainketak egin eta ordainagiriaren kopia eskura NOAUA!-ra ekarri edo emailaz bidaltzeko. 77 euroko kuota ordaindu behar da, 62 euro familia ugariak, Euskadiko Kutzako kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0140 34 1400025811. Informazio gehiago: 943 360 321.

Zubietako Txokoetan, izen ematea ixtear da

Ostiral honetan, maiatzaren 11n itxiko da Zubietako udako txokoetan apuntatzeko epea. 3-11 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzenduriko eskaintzan izena emateko Barazar tabernan edo Zubietako herri ikastetxean eskura daitezkeen orriak bete eta Zubietako Herri Batzarreko postontzian utzi beharko dira. Argibide gehiago: 636 719 301 (Josune) edo 618 700 479 (Izaskun).

Buruhandiak egiteko tailerra

Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak tailer berri bat antolatu du; buruhandiak sortzeari buruzkoa. Larunbat honetan, maiatzaren 12an eta hilaren 19an burutuko dira saioak, Agerialden. Izen ematea ostegun honetan, maiatzaren 10ean itxiko dute. Parte hartzeko asmotan diren familiek, kideen izen abizenak emailaz bidali behar dituzte hitzaho@udarregi.com helbidera. Prezioa: 10 euro.

Asmakizun batzuk



LH4KO IKASLEAK.

Kaixo lagunok, hemen dituzue Arabiarrekin lotura duten asmakizun batzuk.

Zer dela eta zer da, lepoa bai eta bururik ez duena, besoak bai eta hankarik ez duena?

Kolore eta margo, irudi eta marrazki, zure oinak goxatzeko, nabil ni narraski. Sare gainean ditut trabeska mila hari, Arabiako ipuinetan nabil hegalari.

Piztuta argia, igurtzita magia. Ipuinetakoa nauzu: txit miresgarria. Nor naiz?

Norbaitzuk basamortuko ontzia deitu didate, Hondarrezko itsasoan nabil urik gabe. Bizkarrean konkor bi banitu, gamelu nintzateke.

Erantzunak hauek dira: dromedariora, alfonbra, alkandora eta krisailu miresgarria.

LH 4. mailako ikasleak

Bertso Jaialdia maiatzaren 28an izango da

Ikastolan urtero egiten den Bertso Jaialdia egunez aldatu da. Maiatzaren 24an ostegunarekin iragarria zegoen, baina orain maiatzaren

28an astelehenez egitea erabaki da, arratsaldeko 17:30ean. Udarregi ikastolako Erdiko Aretoan egingo da Bertso Jaialdia.

Martxan da Liburutruk ekimena

Hitz-Aho guraso elkarteak Liburutruk ekimenaren berri eman nahi du. Liburuak berrerabiltzeko sistema da Liburutruk. "Iaz martxan jarri zen eta balorazioa oso ona izan zen. Helburua, testu liburuak ahal den ikasturte gehienetan erabiltzea", dio igorri diguten oharrak.

Hitz-Ahok honela argudiatu du ekimen honen balioa: "Gure Ikastolan horrelako sistema sortzeko hiru arrazoi ditugu:

1. Gure seme-alaben heziketa hobetzeko.
2. Ekonomiagatik.
3. Ekologiagatik".

Funtzionamendua haxe izango da: "Ikastolan banatutako orria bete izena emateko, eta fidantza ordaindu. Urtean zehar erabilitako liburuak gelan utziko dituzte ikasturte bukaeran, eta irailean liburuak eta lan koadernoak ikastolan bertan jasoko dituzte".

Sistema hau Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasten da.



HITZ AHOK KOORDINATZEN DU.

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

ANTXON QUIROGA ITURRALDE

- Frantsesean diplomatua, Hizkuntz Eskola Ofizialean.
- Diplômé de l'Alliance Française au DALF niveau supérieur C2, français langue étrangère
- Diplomatua UNED-en, frantsesa atzerriko hizkuntzako irakaskuntzako aditu gisa.
- Internet eta Skype bidezko klaseak (1 eta 2 mailak)
- Especialitateak: hastapenak/hosiberriak, hobekuntza, elkarrizketa, hizkuntz adierazpenak, negozioetarako frantsesa, hizkuntza frantsesaren egitura.

a.quiroga@ya.com 608180307

Hasierako Lanbide Prestakuntza

Programetan, matrikulazio epea zabalik

Apirilaren 30az geroztik irekita dago, 2012-13 ikasturterako Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan matrikulatzeko epea. Sukaldari-zerbitzari langilea edota ile-apainketa laguntzaile izateko ikasketen artean aukera daiteke. Heziketa eskaintzaren berri izateko, ate irekien eguna ospatu zuten joan den apirilaren 27an.

Egun ikasle direnak euren prestakuntza saioetan murgilduta ikusi zituzten, bisitan joan eta hurrengo ikasturtean ikasle berriak izan daitezkeenek. Instalakuntzak ezagutu eta heziketa eskaintza honen inguruko zehaztasunen berri jaso zuten apirilaren 27an, Atallun egoitza duen Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan.

Hain zuzen, DBHko graduatua ez duten 15-18 urte arteko gazteei zuzendurik dago Hasierako Lanbide Prestakuntza. Matrikulatzeko epea zabaldu dute jada bertan, ekainaren erdialdera arte. Astelehenetik ostiralera, 8:00-14:30 artean eman ahalko da, 2012-2013 ikasturterako izena. Informazio gehiago, 943 360 465 telefono zenbakian edo lhi.usurbil@gmail.com helbidean. Bestela, Atallu industrialdean daude, Zanziura kalea, 3. zenbakian.



ATE IREKIEEN EGUNA OSPATU ZUTEN DUELA EGUN GUTXI.

Lan mundurako zubia

Lanbide bat ikasi nahi duten 15-18 urte arteko ikasleei zuzenduriko eskaintza egiten zaie Hasierako Lanbide Prestakuntzatik. "Oso garrantzitsua da, lanbide bat ikasi nahi duen gaztearentzat. Denak etortzen zaizkigu esanez DBH graduatua atera nahi dutela", dio bertako zuzendari Idoia Belokik, eta horretarako formazioa eskaintzen zaie, baina bere esanetan, "guk adierazi nahi dieguna da, bi urteren buruan lanean egon daitezkeela".

Udal egitasmo honen bidez, ikastetiki lan mundurako jauzia egiteko zubi direla gogorarazten dute. Horren erakusgarri, egun, 18 ikasle praktiketan ari direla, non eta izen handiko guneetan, inguruotako "ile apaindegi eta jatetxe oso garrantzitsuetan".

Enplegua erregulatzeko espedientea Michelinen

Espedientea maiatzean hasi eta Eiraila bukaera bitartean egongo da indarrean eta suspentsiozkoa izango da, hau da, ez dute inor kaleratuko baizik eta egun batzuetarako langabeziara bidaliko dituzte langileak. Lasarte-Oriako lantegian gaur egun lanean ari diren 600 lagunetatik 500-i eragingo die neurriak. LABen esanetan, "lotsagarria da enpresaren jarrera ikusirik 2011n talde osoak 1.462 milioi euroko irabaziak izan zituela eta aurtengo lehen hiruhilabeteko fakturazioa %5 igo dela lehengo urteko epe berdinarekin alderatuta".

Greba deialdia sektore publikoan, maiatzaren 31n

ELA, LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuek, kalitatezko zerbitzu publiko unibertsal eta doakoaren alde antolatu dute lan uztea. Espainiako Gobernuak hartutako neurriak ez aplikatzea eta orain arte onarturiko murrizketak indargabetez eskatzen dute, enplegua sortzeko politikak martxan jarri eta oinarritzko zerbitzu publikoak indartzearekin batera.

Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

2012-2013 ikasturte berriari begira daude jada Usurbilgo Lanbide Eskolan. Bertara ikastera joan asmo dutenentzat ezin egokiagoa den hitzordua antolatu dute; ate irekien eguna, larunbat honetan, maiatzaren 12an, goizeko 11:00etatik aurrera. Bertaratu ezin duenak, bigarren aukera bat ere badu. Ate irekien eguna antolatu baitute baita, hilaren 19rako ere, ordu eta leku berean.



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ARLOAN AITZINDARIA DA.

Usurbilgo Pilota Txapelketan jubenilak hasiko dira lehian asteburu honetan

Usurbilgo Pilota Txapelketa apirilean abiatu zen. Baina orain arte nagusien mailako partidak izan dira jokatu direnak. Saillkatze faseari dagozkionak, hain zuzen. Asteburu honetan hasiko dira azken zortzirenak. Jubenilen kasuan, ordea, asteburu honetan hasiko da txapelketa. Kanporaketa moduan jokatuko da. Tartean dira Zendoia, Telleria eta Ibargoen herriko pilotariak. Zerrenda honetan dituzue jubeniletan arituko diren bikote guztiak.



JUBENILAK ASTEBURU HONETAN
HASIKO DIRA JOKATZEN.

- | | |
|--|------------------------------------|
| 1- Zendoia – Telleria (Usurbil) | 9- Bandres – Millan (Alde Zaharra) |
| 2- Ibargoen – Altuna (Usurbil-Hernani) | 10- Apaolaza – Erostarbe (Urretxu) |
| 3- Etxenike – Murgiondo (Hernani) | 11- Eskudero – Otaño (Andoain) |
| 4- Labaka – Elustondo (Bidegoien) | 12- Murua – Goenaga (Getaria) |
| 5- Cristobal – Mujika (Añorga) | 13- Larrañaga – Agirre (Zaramaga) |
| 6- Loitegi – Lizaso (Urnieta) | 14- Telletxea – Andueza (Erreka) |
| 7- Labaka – Redondo (Lasarte) | 15- Olano – Barberena (Leitza) |
| 8- Hernandez – Arzallus (Oiartzun) | 16- Inda – Untxalo (Txaruta) |

Asteburu honetako partidak

MAIATZAK 12 LARUNBATA

Usurbilen, goizeko 10:30ean

JUBENILAK

Cristobal-Mujika / Olano-Barberena
(Añorga) (Leitza)

NAGUSIAK

Esna-San Sebastian / Muguruza-Rezusta
(Hernani) (Bergara)

Araztoa-Otxandorena / Katalina-Aizpuru
(Baztan) (Usurbil)

MAIATZAK 13 IGANDEA

Usurbilen, goizeko 10:30ean

JUBENILAK

Etxenike-Murgiondo / Labaka-Elustondo
(Hernani) (Bidegoien)

Hernandez-Arzallus / Apaolaza-Erostarbe
(Oiartzun) (Urretxu)

NAGUSIAK

Bendoiro-Gorriti / Urmeneta-Elola
(Doneztebe) (Añorga-Lasarte)

Iñaki Añorga bosgarren, Azkoitiako Duatloian

Sasoiko dabilta Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko kideak. Apirilaren 28an Azkoitian ospatu zen XIII. Duatloi Txapelketan bosgarren postuan sailkatu zen talde kide Iñaki Añorga. 1:33:10 denboran bukatu zuen distantzia motzeko proba. Berarekin batera ziren kirol bilguneko beste bi kide ere; Jose Manuel Alkorta eta Iban Maritxalar. 130 kirolarik parte hartu zuten.

Victor Gonzalez Espainiako arrantza txapelketan izango da

Asteburu honetan Espainiako Arrantza txapelketan parte hartuko du Victor Gonzalez herri-tarrak. Asturiasen lehiatuko da, Piloña ibaian. Euskal Selektioarekin doa hara. Usurbildarrak taldeka eta banakako txapelketan parte hartuko du.



ESKUBALOIA KIROLDEGIAN

2012/05/11, ostirala:

Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa. 18:30h
Usurbil KE - Egia

Jaietako haur danborradan izen ematea, larunbatean

Santixabeletako haur eta helduen danborrada saioetan parte hartu nahi duten herriarrek orain dute izen emateko aukera. Larunbat honetan, maiatzaren 12an, goizeko 11:00etan Agerialdeko beheko frontoira gerturatzen diren 5 urtetik gorako haurrak apuntatu ahal izango dira, haur danborradarako.

Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, banderadun, gastadore eta kantinerentzat plaza mugatuak egongo dira. Egun berean, burutuko dute lehen entsegu saioa eta hortik aurrera, larunbat goizero ordu eta leku berean bilduko dira haur danborrada prestatzeko. Helduen danborradan apuntatzeko



IZEN EMATEA AGERIALDEN, LARUNBATEAN 11:00ETAN.

pixka bat itxaron beharko da oraindik. Ekainaren 4an, astelehena, 20:00etan Agerialdeko beheko frontoian finkatu dute apuntatzeko hitzordua. Entsegu saioak ere, hortik aurrera, astelehen eta asteazkenetan, 20:00etatik aurrera burutuko dira Agerialden.

Donostiako Olatu Talka gure herriraino iritsiko da

2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatua dute Donostia, eta horri begira, hainbat eta hainbat ekimen antolatzen ari dira Gipuzkoako hiriburuan, tartean Olatu Talka izeneko kultur ekitaldi sorta. Donostian eta handik kanpo ere herrialdeko beste hainbat udalerrietara hedatuko da, tartean Usurbila. Ostiral honetan, maiatzaren 11n, bi emanaldi programatu dira Artzabalen eta Ardi Beltz garagardotegian:

19:00 Urko Menaia bakarlarria



URKO MENAIA. INFORMAZIO GEHIAGO WWW.OLATUTALKA.EU ORRIALDEAN.

Artzabalen (argazkia: Markos).

20:00 Dúo Jasmine Ardi Beltz garagardotegian.

Olatz Korta, ETB1eko "Kantuan" saioan

Usurbildar batek parte hartuko du larunbat honetan, maiatzaren 12an Euskal Telebistako lehen kateko "Kantuan" saioan. Olatz Kortak hain zuzen. Larunbat honetan, gaueko 21:30etatik aurrera Julian lantzik aurkezturiko saioan ikusi eta entzun ahal izango dugu.

San Juanak

prestatzeko bilera

Kalezarreko guraso taldeak bilera berri bat deitu du San Juan jaien inguruan. Maiatzaren 18an ostirala, 16:45ean Haraneko lokalean.

KZgunearen oharra

Usurbilgo KZguneak telefono zenbaki berria du: 943 023 684.

Usurbil Cup, bilera

Maiatzaren 18an abiatuko den Usurbil Cup txapelketari begira, taldeetako entrenatzaileen bilerara antolatu du Usurbil FT-k. Hitzordua, maiatzak 14 astelehena, 19:00etan Artzabalen. Antolakuntzak txapelketaren araudia azalduko die.

"Goazen plazara!",

maiatzaren 19an

Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldarrikapena, hiriburu eta udalerrietako plazetara eraman asmo du Herrira bilguneak, datorren maiatzaren 19an. Usurbilen ere egingo da ekitaldirik.

ETXETRESNEN KONPONKETA
MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN

645417665
(KABIER)
Usurbil

BENTA TABERNA

HANBURGESAK

Oilasko erreak
Ogitartekoak

943 36 93 05

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Agenda !!

Maiatzak 11 ostirala

- "Gertu gertutik" diaporama
(Iñaki Agirresarobe) Sutegin 20:00h.

Maiatzak 12 larunbata

- Ruper Ordorika kiroldegian,
22:00etan. Sarrerak alde zuzenetik
kiroldegian, Lizardin, kutxa.net:
10 euro. Egunean bertan takilan, 12.

Maiatzak 15 asteartea

- San Ixidro eguna (aldamenean
ekitaldien xehetasun gehiago).
- "Izan gai-jartzailea", Unai Elizasu.
Hitzaldia Artzabalén, 19:30ean.

Goardiako farmaziak

Maiatzak 10, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 11, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 12, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 13, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 14, astelehena
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Maiatzak 15, asteartea
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 16, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 17, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 18, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 19, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 20, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak*
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Datorren asteartean,

San Ixidro eguneko ospakizunak

Datorren asteartean, hilak
15 izango ditu, San Ixidro
Eguna. Urtero moduan,
zenbait ekitaldi antolatu dira herrian.
Tartean, bazkari bat. Otordurako
txartelak erosteko larunbat honetara
arteko epea dago.

Baserritarren eguna ospatuko da, aste-
artean; maiatzaren 15a, San Ixidro
eguna baitugu. Urtero bezala, zenbait
ekitaldi antolatu dira goiz eta eguerdi
parterako. Meza nagusia, hamaiketako
ederra, herri kirolak eta goiza borobiltze-
ko, bazkaria. Otordua, oraingoan
Artzabalén ospatuko da. Txartelak,
Alkartasuna Kooperatibean eskura daitez-
ke. Adi, larunbat hau, maiatzaren 12a
baita txartelak eskuratzeko azken eguna.

Hona hemen, San Ixidro eguneko egi-
taraua:



ZALDI DEMA EGINGO DA.

ARGAZKIA: XINGOLA.

10:30 Meza nagusia Salbatore Elizan.

11:30 Hamaiketakoa. Salda eta haragi
egosia frontoian.

Ondoren ikuskariak: zaldi dema, harri
jasotzaileak, aizkolariak, bertsolariak eta
trikitilariak.

14:30 Bazkaria Artzabalén. Txartelak
Alkartasuna Baserritarren Kooperatibean
salgai. Prezioa: 22 euro. Txartelak eroste-
ko azken eguna: maiatzak 12.

Maixuetzeko pisu bat alokairu sozialean eskuratzeko aukera

Agerialde parean dago,
Gernika Ibilbidea 13 helbide-
an. Pisu honetan bizitzeko interesa
duten herritarrek, maiatzaren 23ra
arteko epea dute, eskaera udaletzeko
erregistroan aurkezteko. Leku berean
eskura daitezke, izen emateko eska-
bide orriak, baita aukeraketa proze-
surako oinarrien inguruko informa-
zioa ere.

Santuenea

Kultur Elkartearen batzar orokorra

Maiatzaren 16an asteazkena,
Marratsaldeko 19:30ean,
Santuenea Kultur Elkartearen
batzar orokorra egingo da. Gai
nagusia hauxe izango da: Elkarte
lehendakari karguaren uztea onar-
tzea eta lehendakari berriaren hau-
taketa.

Batzarra elkartearen egoitzan
egingo da, Santuenea 12an.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

URAINTZI@EUSKALNET.NET

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA

- Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
- Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako aloka daiteke, edota baita uda parterako ere. Prezioa: 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairuko, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914
- Kaxkxon atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkxon. Dena berriua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Etxebizitza alokatzen da Usurbilen. 3 logela, bi bainu gela, sukalde eta salarekin. 626 347 914.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
- Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berriua, fatxada eta teilatu konpondu berriak. 677 471 648.
- Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriurik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkxon. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gautan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deporti-

- boa eta erruberak zabaltzeko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, gutzira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabal. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu, Xarma tabernan. 943 368 771.
- Selektibitatea prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoa. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan-eskaintzak

- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanerako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanerako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanerako. Helduak zaindu, sukalden lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrek emateko prest. Atzerriko Hizkuntza Majisteritza eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrek emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrek emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak

- zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrek, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrek emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zainzteko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanerako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritza aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketak titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaindu edo dendari lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gautan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditut ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanerako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanerako. Esperientziaduna. 658107757

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Mutil baten Txamarra talla 10-12 galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kamping kanadienseak jasoko genituzke. zioztage@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinea. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitzita joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzatan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

JAIOTZAK

- Enaitz Beristain Merino, apirilak 17
- Mare Alonso Olasagasti, apirilak 18
- Eneko Isasa Mena, apirilak 19
- Izaro Ugarte Machinandiarena, apirilak 23
- Olaia Lizarralde Galardi, apirilak 23



Zorionak Maialen!
Egun ona pasa genuen zure 8. urtebetetzean, muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Malen!
Oraingoan 4 kandela izango dituzu itzaltzeko. Muxu potolo bat guztion partez polita.



Zorionak amona Pepita!
Maiatzaren 16an badeu zer ospatu, zorionak eta muxu etxekoan partez!



Zorionak Nora!
Maiatzaren 13an, 5 urte beteko dituzu. Muxu asko Maria, aita eta ama.

USTEKABEKO DESKONTUAK

Maiatzean erosketak Hurbilago
Txartelarekin ordaintzerakoan %5
aurrez dezakezu.

-%5

Deskontuak zoriz aterako dira
hilabetean zehar.



hurbilago

Usurbil

hurbilago

hurbilago

hurbilago

hurbilago

Zorionak Usurbil! Eredugarriak gara

Atez ateko bilketa sistemarekin
%89 gaika biltzen dugu

Ingurumen ministerioak eredugarritzat
jo du Usurbilgo atez ateko bilketa

ikusi: <http://www.magrama.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/prevencion-y-gestion-residuos/buenas-practicas>

 **Usurbil**
osasuna atez ate

